



BIZKAIKO MENDI FEDERAZIOKO ZUZENDARI BATZORDEAREN AKTA

Bilbon 2026eko otsailak 04 19:00etan

Partaideak: Pedro Aizarna, Alfonso Requero, Sole Santisteban, Garbiñe Okerantza, Alberto Cardoso, Sergio Lopez, Leire Zaballa, Aitor Arnedo, Aitziber Uriarte

2026eko urtarrileko akta onartu da.

Kirolur: bide onetik doa, bai Bozgorailuetako ekitaldia, bai Emakumeak Gailurretan.

BBK mendi martxa: Martxei buruzko informazioa eskatu digute albiste bat egiteko. Nahiz eta aurrean juntak erabaki duen ze ibilaldi izan dira mendi-ibilien ligakoak edo BBK martxa, datorren urtean klubekin harremanetan jarriko da beraiekin adosteko.

Gorbeia aterpea: aste honetan albiste bat atera da, Gorbeia aterpetxeak eskaintako zerbitzu berrietatik bildutako dirua udalari eskainiko zitzaioela esaten zuena. Ez da zuzena, Josebarekin hitz egiten eta argitzen da, gaizki-ulertu bat izan da

75. urteurrena Padura: ospakizunera joan eta oparia banatu zen.

Laguntzaile "benevolak", federazio guztientzako prestakuntza bateratua egingo da, lege-arazoak saihesteko. Eusko Jaurlaritzak pertsona horien zerrenda eskatu du.

Bizkaia Kirolak 2026 Sariak: Proposamenak curriculum eta bakoitzaren ibilbidea otsailaren 16a baino lehen bidali behar dira. Izar Gaztea kategorian 16 urterekin 6000mtako mendia egindakoa, Asier Zaita proposatzen da. Leialtasun Sarian, Kepa Lizarraga BMFko medikua eta Arantza Lasurtegi Munarrikolandako (Sopela) presidentea.

Batzar orokorra: data 2026ko martxoaren 28an erabakitzen da, larunbata 10:00etan.

Eskola-kirola: aldundiarekin bilduta honako jarduerak berrikusi ziren, Ubidean egonaldi bat txikientzat (jarduera asko prestatzen ari dira), nagusiagokoentzat Bedartzandian eskalada asteburua, eta jai finalista Zugastietan izango da, maiatzak 17an (konfirmatzeko zai)

Goi mendi eskola: orain arte egindako ikastaroek oso harrera ona izan dute (baita itxaron-zerrendarekin ere). Hurrengo ikastaroak prest eta eskuragarri daude webgunean. Bestalde, Igor eta Oier Indusiko eskalada ekipatzeko lanetan dabiltzate, gaur bertan Aldundiak baimena eman digu eta orain eliza bakarrik falta da.

Berdintasuna: martxoaren 7an berdintasunaren aldeko martxa antolatuko da Urdulizen. Emakumeak Bizkaiko Gailurretan dagokionez, klubekin harremanetan jarraitzen dugu mendiak osatzeko. Azken ekitaldi handiari dagokionez, Enaren Ibilbidea uztailaren 4tik 7ra izango da, 15 pertsonentzako erreserba egingo da eta bokaliak irteeraren kostuaren zati bat finantzatzea erabaki da.

Segurtasuna: EMFk mendiko segurtasun teknikariaren ikastaroa egin nahi du. Ikastaro honetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da prestakuntza egiaztatzea baina lortutako esperientziaren ere egiaztatu izan ahako da, konfirmatzeko dago. Helburua segurtasun-ikastaro horiek EMFk homologatzea eta ematen diren hitzaldi eta prestakuntza guztietan eduki bera izatea da.



Segurtasun-topaketa Arrigorriagan egitea proposatu da urriaren 24-25ean. Saioak honako hauek izango dira: erreskateetan lan egiten duten taldeekin mahai-inguru bat, lege-ikuspegia izateko beste alde juridiko bat, meteorologiari buruzko beste bat, beste kirol-osasun eta psikologia bat, eta Mendikosoloko simulakro bat.

Ipar martxa: Deustuko Unibertsitatera hurbilduko gara (kirol zientzien gradua), ipar martxa programan sartzeko proposamenarekin. Hilaren amaieran, mendiaren astea da Leioan, eta hitzaldi bat eta ipar martxako tailer txiki bat emango da (24feb).

Eskia: Euskadi kopako lehen proban esku-ohea utzi zitzaien eta zorionez ez zuten behar izan. Asteburu honetan Carolo Bandres kopako bigarren proba izango da. Elur-jausiei buruzko hitzaldi bat eman zen, eta jende interesatuaz beteta egon zen, urte honen amaieran beste hitzaldi praktikoago bat egitea pentsatuta.

Sinatuta,

AITZIBER URIARTE ASTOBIZA
SECRETARIA DE LA FEDERACIÓN